



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko urriaren 16a

103. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategineko 56. artikulua aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (3. or.).
- Foru Lege proposamena, nekazaritzako ustiategiei lotutako artisau-ekoizpena arautzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (4. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Berako herriaren izena behar bezala erabil dezan bideko seinaleetan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Muru Artederretaren eta Gasteizen arteko 400 kV-eko goi tentsioko lineak ukitutako herrietako kargu publikoek sustatu duten adierazpenarekin. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharrekoa egin dezan Julio Caro Baroja Museo Etnologikoa behin betikoz jar dadin Lizarrako Santo Domingo komentua izandakoan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, 2009ko Buruko Osasunaren Nazioarteko Eguna dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, jakiteko zertan diren Espetxeetako Erakundearekiko izapideak, Iruñeko espetxean mediku psikiatra bat egotea ziurtatze aldera, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (9. or.).
- Galdera, jakiteko zertan diren Espainiako Gobernuarekiko izapideak, Altsasuko tren geltokian bai Bartzelonarako bai Madrilerako tren bat egunero gera dadin, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (10. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernua bat datorren Iruña Europako 2016ko kultur hiriburu izateko hautagaitza sustatu beharrekin, Román Felones Morrás jaunak egina (10. or.).

- Galdera, jakiteko ea Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak Nafarroako Poliziaren Garapenari buruzko Plana dela-eta Parlamentuak hartutako erabakia betetzeko asmorik duen, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (11. or.).
- Galdera, zenbait herrik eta ehiztari-elkartek ehiza esparruen kudeaketa utzi izanari buruzkoa, María García Iribarren Ribas andreak egina (12. or.).
- Galdera, Arreta Podologikoari buruzko Adituen Lantaldeak eginiko gomendioei buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (12. or.).
- Galdera, emakumeari laguntzeko Tuterako eta Iruñeko zentroi buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Santo Domingoko zahar-etxeari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (14. or.).
- Galdera, abuztuko azken egunetan A-15 autobioiako 114. kilometro-puntuan jarduerarik ez egoteko arrazoi-  
ei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (14. or.).
- Galdera, euskara sustatzeagatik Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jaso duten Nafarroako entitateei eta  
elkarteei buruzkoa, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (15. or.).
- Galdera, Administrazioaren jardunbide egokiaren kodeari buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak  
egina (16. or.).
- Galdera, NAPIren toki administrazioaren gaineko ikastaroari buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak  
egina (16. or.).
- Galdera, Iruñeko Hizkuntza Eskolari buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (17. or.).
- Galdera, Foruzaingoaren buruari buruzkoa. Galdera berriro egitea (18. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Ikastetxeak eraiki eta eraberritzerakoan zer alderdi hartu beharko liratekeen kontuan aztertzeko lan-taldeen txostena. Hezkuntza Batzordeak onetsia (19. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategineko 56. artikulua aldatzen duena.**

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 13an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2009ko urriaren 8an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategineko 56. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkar-teak aurkeztu eta 2009ko ekainaren 26ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**1.** Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategineko 56. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

**2.** Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordearen esku uztea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2009ko azaroaren 9ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2009ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Foru Lege proposamena, nekazaritzako ustiatzei lotutako artisau-ekoizpena arautzen duena.**

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 13an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2009ko urriaren 8an egindako Osoko Bilkuran, nekazaritzako ustiatzei lotutako artisau-ekoizpena arautzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2009ko ekainaren 26ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

#### **ERABAKIA:**

**1.** Nekazaritzako ustiatzei lotutako artisau-ekoizpena arautzen duen Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

**2.** Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Landa Garapenerako eta Ingurumene-ko Batzordearen esku uztea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2009ko azaroaren 9ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2009ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Berako herriaren izena behar bezala erabil dezan bideko seinaleetan.**

*NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Berako herriaren izena behar bezala erabil dezan bideko seinaleetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioak

Azken aste hauetan N-121-A errepideko hobe-tze lanetan seinaleak jartzen ari dira. Seinale hauetan Bera herria izendatzerakoan izendapen zaharra erabiltzen jarraitzen dute, hau da Vera de Bidasoa.

Nafarroako aldizkari ofizialean (NAO) 2009ko abuztuaren 7an argitaratu zen 354/2009 sententzia. Sententzia honen eraginez Bera herriaren

izena berriz ere historikoki erabili izan dena izatera bueltatzen da, hau da BERA. Sententzia honen arabera honako erabaki hauek hartzen dira bertze batzuen artean:

– “La denominación del denominado municipio de Bera/Vera de Bidasoa será en adelante la de Bera.”

– “Se proceda de forma inmediata a las publicaciones oficiales, rectificaciones y demás efectos legales que proceden derivadas de las anteriores declaraciones.”

Bigarren puntu honi kasu eginez, talde hau harriduraz ikusten ari da egin berri den N-121-A errepidearen seinaleetan nafar gobernuak ez duela erabaki hau betetzen, eta nahiz eta uler dezakegun sententzia eman denetik epe laburra izan dela nafar gobernuak erabakia bere organo guztietara zabaltzeko, akats hauek zuzentzea beharrezkotzat jotzen dugu.

Hau dela eta, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Seinale hauek berehala alda ditzala.

2. Hemendik aurrera jartzen diren errepideko seinaleek eta gainerako euskarriek izendapen ofiziala bete dezatela.

3. Lehenagotik jarrita zeudenak aldatzeko pausoak eman ditzala lehen bait lehen.

4. Nafarroako zonalde euskaldunean seinalizazioak eta gainerako euskarriek euskararen legea bete dezatela.

Iruñean, 2009ko urriaren 7an

Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Muru Artederretaren eta Gasteizen arteko 400 kV-eko goi tentsioko lineak ukitutako herrietako kargu publikoek sustatu duten adierazpenarekin.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Muru Artederretaren eta Gasteizen arteko 400 kV-eko goi tentsioko lineak ukitutako herrietako kargu publikoek sustatu duten adierazpenarekin.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Foru erkidegoko eskualde garrantzitsu bateko –Estellerriko– biztanle eta udal arduradunak oso

kezkaturata daude eskualde horretako zenbait udalerrri zeharkatuko dituen 400 kV-eko goi-tentsioko lineak lurralde horretan eta lurralde horren gaur egungo eta etorkizuneko garapenean izanen dituen ondorioengatik.

Duela gutxi, ukitutako udalerrietako alkateen ordezkariak batek eskatu zuen Parlamentuan lan bilera bat egitea, baina Mahaiak eta Eledunen Batzarrak ez zuten eskaera hori onartu.

Erabaki proposamena:

**1.** Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Muru Artederretaren eta Gasteizen arteko 400 kV-eko goi tentsioko lineak ukitutako herrietako kargu publikoek sustatu duten eta Estellerriko 141 udal kargu sinatu duten adierazpenarekin.

**2.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du proiektu horren aurkako jarrera har dezan eta irmotasunez balia ditzan dituen eskumen guztiak lurraldea, ingurumena eta udalerrri horien etorkizuna defendatzeko.

**3.** Nafarroako Parlamentuak Estatuko Ingurumen Ministerioari jakinaraziko dio Parlamentu hau Muru Artederretaren eta Gasteizen arteko 400 kV-eko goi tentsioko linearen trazaduraren aurka dagoela, eta premiatuko du beste aukera batzuk bila ditzan, eskualde horretatik urrun gauza daitetzkeenak eta kalte gutxiago sortuko dituztenak.

Iruñean, 2009ko urriaren 8an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharrekoa egin dezan Julio Caro Baroja Museo Etnologikoa behin betikoz jar dadin Lizarrako Santo Domingo komentua izandakoan.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egin beharrekoa egin dezan Julio Caro Baroja Museo Etnologikoa behin betikoz jar dadin Lizarrako Santo Domingo komentua izandakoan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Samuel Caro Sádabak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egin beharrekoa egin dezan Julio Caro Baroja Museo Etnologikoa behin betikoz jar dadin Lizarrako Santo Domingo komentua izandakoan.

Zioen azalpena

Nafarroak kultur ondare garrantzitsua osatu du denborarekin, eta museoak horren adierazgarri dira. Urteak iragan ahala, Nafarroako Museoari eta Iruñeko Elizbarrutiko Museoari beste erakunde publiko nahiz pribatuak, zibilak eta erlijiosoak gehitu zaizkie, foru erkidegoko zati handi batera zabaltzen den sare bat osatu arte.

Museoen ugaltzearen ondorioz eta sektorea antolatu eta sustatzeko beharraren eta museoen arloan izandako aldaketen ondorioz, duela gutxi Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Museoen eta Bilduma Museografiko Iraunkorrei buruzko Foru Legea onetsi du aho batez.

Aipatu sarean aurreikusitako museoetako bat, talde politiko eta kulturaren arloko sektore gutzien

onespena duena, Julio Caro Baroja Museo Etnologikoa da. Gaur egun, museo horrek 12.000 pieza ditu, bai eta 25.000 iruditik gora duen fototeka bat eta biblioteka monografiko interesgarri bat ere.

Museo horren historiak gorabehera asko izan ditu. Iratxeko monasterioan jartzeko hasierako aurreikuspenak topo egin zuen monasterioa paradore nazional bihurtzeko erabakiarekin; Jarduera hori abian da gaur egun. Behin-behinekoz, museoa Lizarrako Merkatondoa industrialdeko nabe batean jarri zen, eta hantxe jarraitzen du bere jarduerak garatzen, nahiko baldintza egokietan.

2008ko otsailaren 27an, Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordeak bisita egin zuen funts horiek ikusteko, eta, bisita haren ondorioz, Nafarroako Gobernua premiatu zuen Lizarrako Udalarekin batera izapideak azkartu zitzaizkion museoaren San Benito komentua izandakoan jartzeko.

Hala ere, azken urte honetan beste aukera bat zabaldu da. Nafarroako Gobernuak erabaki sendoa hartu du San Domingo zahar-etxea uzteko, behin zentroaren egokitze-lanak amaitu ondoren ezinen baitu jarraitu antzeko ohe kopuruarekin. Horren ondorioz, Santo Domingo komentua izandakoa hutsik geratuko da laster, eta, zalantzarik gabe, hori aukera hobea da aurretik kontuan hartu bai baina hasi gabeko San Benito komentua baino.

Hona hemen horren arrazoiak:

**1.-** Santo Domingo komentuari tamaina eta egitura hobeto egokitzen dira Museo Etnologikoren beharrianetara San Benito komentukoak baino.

Santo Domingo komentuari San Benitok baino balio artistiko, monumental eta ondarezko handiagoa du. Horrenbestez, proiektu museistiko on bat egiteko, zailagoa eta behar bada garestiagoa izanen den arren, askoz interesgarriagoa da lehen aukera bigarrena baino.

**3.-** Hirigune historikoan egoteak –hori da Santo Domingoren kasua– inguruko eraikin eta guneekiko sinergia sortzen du, hau da, elkarren indargarri dira, eta hori ez litzateke neurri berean gertatuko San Benito komentuan.

4.- Eraikinaren sinbologia, hiriaren talaia bailitzan, askoz ere handiagoa da Santo Domingon San Beniton baino.

5.- Baztertu ezin daitekeen beste arrazoi bat da Lizarrako hiriak San Benito komentua erabil dezakeela –gaur egun Golem zine aretoek zati bat hartzen dute– hirian dauden hezkuntza eta kulturaren arloko zenbait beharriaz erantzuteko.

Proiektuak daraman atzerapena ikusita, ez dirudi zentzugabea behin betiko konponbidea zertxobait atzeratzea, hartzen den erabakiak modu egokian erantzuten badie museoaren gaur egungo eta etorkizuneko beharriaz.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egin beharrekoa egin dezan Julio Caro Baroja Museo Etnologikoa behin betikoz jar dadin Lizarrako Santo Domingo komentua izandakoan.

Iruñean, 2009ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

## **Adierazpen instituzionala, 2009ko Buruko Osasunaren Nazioarteko Eguna dela eta.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2009ko urriaren 13an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak berresten du buruko gaixotasunak dituzten pertsonekin duen konpromisoa.

2. Nafarroako Parlamentuak buruko osasunaren garapena sustatuko du, buruko osasuna ulertuta Osasunaren Mundu Erakundeak adierazitako moduan: “ongizate egoera, zeinetan norbanakoa bere ahalmenez jabetzen baita eta, era berean, gai baita bizitzako ohiko tirabirei aurre egiteko, era produktiboan lan egiteko eta bere erkidegoari ekarpen bat egiteko”.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du asmo sendoa duela buruko osasunak lehentasuna izan dezan Nafarroako Foru Komunitateko osasun arloko politketan.

4. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten du Nafarroako Osasun Zerbitzuaren

Buruko Osasunari buruzko Estrategian ezarritako helburuak eta jarduerak ezartzeko buruko osasunaren sustapenaren alorrean eta baita arrisku faktoreen prebentzioaren, arreta egokiaren, errehabilitazioaren eta ikerketaren alorrean ere.

5. Nafarroako Gobernuak adierazten du lan egiteko borondatea duela Nafarroako Foru Komunitateko Buru Osasunari buruzko Plan integrala abian jartze aldera.

6. Nafarroako Parlamentuak lan eginen du halako nahasteak dituzten pertsonak eta haien familiek jasaten duten estigma desagerrarazte aldera.

7. Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen ditu eta babesa adierazten die buruko osasun arazoak dituzten pertsonen arreta eta integrazioa sustatzeko lan egiten duten gaixoen eta familien elkartei.”

Iruñean, 2009ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, jakiteko zertan diren Espetxeetako Erakundearekiko izapideak, Iruñeko espetxean mediku psikiatra bat egotea ziurtatze aldera.**

*ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zertan diren Espetxeetako Erakundearekiko izapideak, Iruñeko espetxean mediku psikiatra bat egotea ziurtatze aldera.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, dagokion batzordean ahoz erantzun diezaioten:

2009ko otsailean, Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza, Barne eta Justizia Batzordeak mozio bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako

Gobernua premiatzen zen espetxe erakundeekiko hitzarmen baten bidez berma zezan mediku psikiatra bat egotea Iruñeko espetxean, buruko gaixotasuna duten presoak artatze aldera, prebentzio-programak eginez, gaixoaren medikazioaren jarraipena eginez, talde-terapiak edo egokitzeak jotzen dituen bestelako ordezkioak praktikan jarritz eta gaixoaren tratamenduan itxaronaldiak laburtuz.

Espetxeratuen eskubideen defentsaren alorrean lan egiten duten elkarteek salatu dutenez, egoera gero eta larriagoa da buruko gaixotasunei dagokienez; izan ere, Iruñeko espetxeko presoek % 50ek dituzte buruko gaixotasunei buruzko arazoak. Egoera arintze aldera, Iruñeko espetxearen menpeko mediku psikiatra bat egotea eskatzen dute.

Egoera ikusirik eta hainbat hilabete iragan direnez Nafarroako Gobernua arazoa konpontzera premiazu zenetik, hau jakin nahiko nuke:

Zein da Nafarroako Parlamentuak eginiko eskaeraren egoera, hau da, zertan da Nafarroako Gobernuak espetxe erakundeekin egin beharreko hitzarmena, bermatuko duena mediku psikiatra bat egonen dela Iruñeko espetxean?

Iruñean, 2009ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

## **Galdera, jakiteko zertan diren Espainiako Gobernuarekiko izapideak, Altsasuko tren geltokian bai Bartzelonarako bai Madrilerako tren bat egunero gera dadin.**

### *ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zertan diren Espainiako Gobernuarekiko izapideak, Altsasuko tren geltokian bai Bartzelonarako bai Madrilerako tren bat egunero gera dadin.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Errege-

lamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, dagokion batzordean ahoz erantzuteko:

Nafarroako Parlamentuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordeak mozi bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen zen egin beharreko izapideak egin zitzaizkien Espainiako Gobernuarekin, Altsasuko tren geltokian egunero gutxienez Bartzelonako eta Madrilerako tren bana gera zedin, joan-etorrietan.

Aldi bat iragan denez mozi hura onetsi zenez, hau jakin nahiko nuke:

Zein da Nafarroako Parlamentuak eginiko eskariaren egoera, hau da, zertan dira Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuarekin egin beharreko izapideak, Altsasuko tren geltokian egunero gutxienez Bartzelonako eta Madrilerako tren bana gera dadin, joan-etorrietan?

Iruñean, 2009ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernua bat datorren Iruña Europako 2016ko kultur hiriburu izateko hautagaitza sustatu beharrarekin.**

### *ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernua bat datorren Iruña Europako 2016ko kultur hiriburu izateko hautagaitza sustatu beharrarekin.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Iragan urriaren 5ean, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak eta Eledunen Batzarrak adierazpen instituzional bat onetsi zuten, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere egiten dituen Europako Kultur Hiriburua ekintza europarraren bidez Europako herritartasunaren eduki osoetarantz jotzeko helburuak.

Adierazpenaren 5. puntuak honela dio: "Azkenik, Nafarroako Parlamentuak gainerako erakunde, entitate eta taldeak, publikoak nahiz pribatuak, eta bai eta norbanakoak ere, premiatzen ditu adierazpen instituzional honen aldeko atxikipena ager dezaten eta, bakoitzak bere jarduera-esparrutik, bultza ditzaten hautagaitzarako beharrezkoak diren helburuak eta prestakizunak". Hori dela eta, hau jakin nahiko nuke:

1.- Nafarroako Gobernu bat al dator Iruña Europako 2016ko kultur hiriburu izateko hautagaitza sustatu beharrezkin?

2.- Zer ekintza jarri ditu abian Nafarroako Gobernuak bere eskumenen esparruan Iruña Europako 2016ko kultur hiriburu izateko hautagaitza sustatzeko?

3.- Bere ustez, ekintza horiek nahikoak al dira?

4.- Zer ekimen berri bultzatuko ditu Nafarroako Gobernuak Iruñak duen ekimen ahula indartzeko?

Iruñean, 2009ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

## **Galdera, jakiteko ea Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak Nafarroako Poliziaren Garapenari buruzko Plana dela-eta Parlatmentuak hartutako erabakia betetzeko asmorik duen.**

*AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak Nafarroako Poliziaren Garapenari buruzko Plana dela-eta Parlatmentuak hartutako erabakia betetzeko asmorik duen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlatmentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera

aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

2009ko martxoaren 26an, Socialistas del Parlamento de Navarra parlatmentu-taldeak mozio bat aurkeztu zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzen hiru hilabeteko epean aurkeztu zezan Nafarroako Poliziaren Garapenari buruzko Plan bat.

Maiatzaren 26an, Lehendakaritza Batzordeak aipatu mozioa onetsi zuen eta maiatzaren 29an Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Mozioan ezarritako epea iraganenez eta departamentuak ez duenez erabakia bete, hau jakin nahiko nuke:

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak ba al du asmorik Parlatmentuak hartutako erabakia betetzeko? Noiz?

Iruñean, 2009ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

## **Galdera, zenbait herrik eta ehiztari-elkartek ehiza esparruen kudeaketa utzi izanari buruzkoa.**

*MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, zenbait herrik eta ehiztari-elkartek ehiza esparruen kudeaketa utzi izanari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.<sup>a</sup> Gracia Iribarren Ribasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariari, Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zuzentzen duzun departamentuak ba al daki foru erkidegeoko herri batzuetan zenbait ehiztari-en elkartek utzi egin diotela ehiza barrutiak kudeatzeari? Zer egiten ari da Nafarroako Gobernua ehiza barrutiak kudeatzeari utzi dioten ehiztarien elkarrekin dauden herrietan? Departamentuak ba al du hitzarmenik udalekin, Nafarroako ehizarako basa faunak nekazaritzan eragindako kalteak ordaintzeko?

Iruñean, 2009ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: M.<sup>a</sup> Gracia Iribarren Ribas

## **Galdera, Arreta Podologikoari buruzko Adituen Lantaldeak eginiko gomendioei buruzkoa.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Arreta Podologikoari buruzko Adituen Lantaldeak eginiko gomendioei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentariaren elkarteko parlamentari Ion Erro Armendarizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Osasun Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Arreta Podologikoari buruzko Adituen Lantaldeak zenbait azterlan egin ditu foru erkidegoan, bai eta zenbait gomendio eman ere. Hori dela eta, hau jakin nahiko nuke:

Jarri al da abian foru erkidegoan gaixotasun baskularrak dituzten pertsonen eta diabetesa duten pertsonen arreta hartzen duen arreta podologikoari buruzko sistema? Hala bada, noiz jarri da abian eta zenbat onuradun izan ditu orain arte?

Zein da arreta podologikoaren zirkuitua Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzutik kanpo?

Nola garatuko da Adituen Komiteak gomendatzen duen zerbitzu-zorrotza?

Nola kontrolatuko da podologoek emandako

arretaren kalitatea? Aurreikusi al da kalitateari buruzko estandarrik? Zein?

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, emakumeari laguntzeko Tuterako eta Iruñeko zentroi buruzkoa.**

*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, emakumeari laguntzeko Tuterako eta Iruñeko zentroi buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Emakumeari laguntzeko Tuterako eta Iruñeko zentroi buruzko galdera.

Zer dirulaguntza jaso dituzte zuzenean emakumeari laguntzeko Tuterako eta Iruñeko zentroeak?

Iruñean, 2009ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

## **Galdera, Santo Domingoko zahar-etxeari buruzkoa.**

### *IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Santo Domingoko zahar-etxeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Santo Domingo zahar-etxeari buruzko galdera

Zure departamentuaren ustez, zeintzuk dira arrazoi teknikoak edo bestelakoak Santo Domingo zahar-etxe egoiliarak beste egoitza batzuetara eramateko?

Iruñean, 2009ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

## **Galdera, abuztuko azken egunetan A-15 autobioiko 114. kilometro-puntuan jarduerarik ez egoteko arrazoiei buruzkoa.**

### *AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, abuztuko azken egunetan A-15 autobioiko 114. kilometro-puntuan jarduerarik ez egoteko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2009ko abuztuaren 26an, parlamentari honek zenbait galdera egin zituen (7-09/PES-00231) A-15 autobioiko –Leitzarango autobioea– 114. kilometro-puntuari buruz.}

Galderetako batek zioen zeintzuk ziren arrazoiak kilometro-puntu horretan jarduerarik ez egoteko abuztuaren amaierako zenbait egunetan, baina erantzunean ez da horri buruzko azalpenik ematen. Hori dela eta, parlamentari honek galdera hau egin nahi du:

1. Zergatik abuztuko azken egunetan ez zen jarduerarik egon A-15 autobioiko 114. kilometro-puntuan?

2. Nafarroako Gobernuko Herri Lan Zuzendariaren arabera, lan horiek 2009ko irailean amaitu behar zuten. Zergatik lan horiek, A-15 autobioiko Bi Ahizpeko pasabidearen parean harri-lubeta egonkortzeko neurriak aplikatzekoak, ez dira oraindik bukatu?

Iruñean, 2009ko abuztuaren 8an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, euskara sustatzeagatik Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jaso duten Nafarroako entitateei eta elkarteei buruzkoa.**

*MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, euskara sustatzeagatik Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jaso duten Nafarroako entitateei eta elkarteei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babese-

an, ondoko galdera aurkeztu dio Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak hizkuntza politikaren alorrean duten lankidetzaren hitzarmenean jardura desberdinak ezartzen dira; hain zuzen, horietako bat da Nafarroako Gobernuak banatuko duela Eusko Jaurlaritzak emandako dirua euskararen sustapenaren alorrean lan egiten duten entitate eta elkarten artean. Hori dela eta, parlamentari honek hau jakin nahiko luke:

• Orain arte euskara sustatzeagatik Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jaso duten Nafarroako entitateei eta elkarteei laguntza horiek proportzio berean jasotzen jarraituko al dute?

• Aldaketarik egonez gero, horretarako jardura-irizpideak zeintzuk diren jakin nahiko nuke eta, halaber, aldaketa horien gaineko informazioa jaso nahiko nuke.

Iruñean, 2009ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

## **Galdera, administrazioaren jardunbide egokiaren kodeari buruzkoa.**

*AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, administrazioaren jardunbide egokiaren kodeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Lehendakari, eta

Barne eta Justizia Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

46/2004 Foru Aginduaren bidez onetsi zen Administrazioaren jardunbide egokiaren kodea. Bertan aipatzen denez, kodea onetsi eta bi urtera berrikusi behar da.

Departamentuko webgunean argitaratutakoa ikusiz gero, ondoriozta daiteke kodea ez dela berrikusi. Egoera zein zen ezagutze aldera, galdera hauei erantzutea nahiko nuke:

1.- Zergatik ez da eguneratu eta/edo berrikusi Administrazioaren jardunbide egokiaren kodea?

2.- NAPIk egin al du kodearen ebaluazioa eta aztertu al du zein den egoera, indarrean egon den urteen ondoren?

3.- Hala ez bada, departamentuak eta NAPIk ba al dute asmorik lan horiek egiteko?

4.- Aipatu erakundeek lan horiek egin badituzte, hori erakusten duen dokumentazioa eskuratu nahiko nuke.

Iruñean, 2009ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

## **Galdera, NAPIren toki administrazioaren gaineko ikastaroari buruzkoa.**

*AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, NAPIren toki administrazioaren gaineko ikastaroari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Lehendakari, Barne eta Justizia Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Webgunearen bidez jakin da NAPIk Toki Administrazioari buruzko ikastaroa antolatu duela. Ikastaroan 18 hitzaldi emanen dira, 6 saiotan banatuta, eta aurtengo urrian eta azaroan egiten da. Aurrekontuen murrizketak eragina izan duenez prestakuntzaren arloan, hau jakin nahiko nuke:

1.- Zer eskaerari erantzuten dio ikastaro horrek, hau da, nola detektatu zen beharizan hori, nork



detektatu zuen, eta noiz erabaki zen ikastaroa antolatzea?

Nork hartu du bere gain ikastaroa antolatzeko ardura? Zein da ikastaroaren kostua, antolamenduari buruzko kostuak, hizlarietako dagozkienak eta abar xehakaturik, eta zein kontusailaren kargura ordainduko da? Kostuari buruzko aurrekontua edo txosten osoa jaso nahiko nuke.

3.- Nolakoa da ikastaroaren finantzaketa? Publikoa al da bere osotasunean? Nolako laguntza pribatuak izan dira?

4. Ikastaro horretan, Nafarroako administrazio publikoetako langileak aritu dira hizlari. Ordainsa-

irik jaso al dute parte hartzeagatik? Zenbatekoa?

5.- Nola hautatu dira ikastaroa eman duten pertsonak? Nork hautatu ditu?

Zenbat pertsonak izan dira parte hartzeagatik? Zein da parte-hartzaileen profila? Zer irizpide hartu dira kontuan parte-hartzaileak onartzeko?

7.- Ikastaroa zergatik egingen da Iruñean bakarrik? Aztertu al da ikastaroa eskualdeka, eremuka edo merindadeka egiteko aukera?

Iruñean, 2009ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

## **Galdera, Iruñeko Hizkuntza Eskolari buruzkoa.**

*MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, Iruñeko Hizkuntza Eskolari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Hizkuntza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Urtero, ikasturte hasieran, Iruñeko Hizkuntza Eskolari buruzko berriak izaten dira, ikastetxe

horretan irakasten diren hizkuntzak ikasteko posturik lortzerik izan ez duten pertsonen kopurua dela-eta. Horri gehitu behar zaio matrikulak kudeatzeko ereduaren ondorioz, eskatzaileak behartuta egoten direla ikastetxeko atean ilaran egotera goizaldeko desorduetan.

Beste irakaskuntza mota batzuetan gertatzen den moduan, krisialdiaren eraginez jende askok erabaki du mota desberdinetako ikasketak egiten hastea. Hizkuntza Eskola ez da salbuespena izan eta aurreko ikasturteetako egoerak, agian, okerrean egin du eskaera handitu izanaren ondorioz.

Egoera horren aurrean hauexek dira gure galderak:

1.- Ba al dago zerbait egiteko asmorik helduen hizkuntzen irakaskuntzari era integralean heltzeko Iruñeko Hizkuntza Eskolan?

2.- Aztertu al da zerrendak eta matrikulak kudeatzeko modua aldatzeko aukera, goizaldean izaten diren ilarak eta postu bat lortzeko ordutako itxaronaldi luzeak ekiditeko?

Iruñean, 2009ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

## **Galdera, Foruzaingoaren buruari buruzkoa.**

### *GALDERA BERRIRO EGITEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 13an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Amanda Acedo Suberbiola andreak idazkia aurkeztu du, zeinaren bidez eskatzen baitu Foruzaingoaren buruari buruzko galdera (7-09/PES-00217) berriro egitea (galdera 2009ko irailaren 14ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen).

Gobernuak 2009ko irailaren 28an igorritako erantzunak (urriaren 15eko 102. Nafarroako Parla-

mentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua) ez dio galdetutakoari erantzuten. Hori dena ikusita, ERA-BAKI dugu:

**1.** Nafarroako Gobernua prematzea aipatu galdera idatzian egindako galdera zehatzak lehenbailehen erantzun ditzan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

**Ikastetxeak eraiki eta eraberritzerakoan zer alderdi hartu beharko liratekeen kontuan aztertzeako lan-taldearen txostena.**

**HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikulua xedatutakoa betez, ikastetxeak eraiki eta eraberritzerakoan zer alderdi hartu beharko liratekeen kontuan aztertzeako lan-taldearen txostena argitara dadin agindu dut. Txosten hau Hezkuntza Batzordeak onetsi zuen 2009ko urriaren 2an.

Iruñean, 2009ko urriaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**TXOSTENA**

**AURREKARIAK**

1. 2008ko otsailaren 15ean, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak proposatuta, Hezkuntza Batzordeak lan-talde bat eratzea erabaki zuen, ikastetxeak eraiki eta eraberritzerakoan kontuan hartu beharko liratekeen alderdiak aztertze aldera.

2. Lan-taldea 2008ko ekainaren 19an eratu zen, eta ondoko kideak izan ditu, Legebiltzarreko parlamentu-taldeek eta foru parlamentarien elkar-teek izendatuta: Carmen María González García andrea (UPN), María Luisa Mangado Cortes andrea (NABAI), María Victoria Arraiza Zorzano andrea (SPN), José Andrés Burguete Torres jauna (Convergencia de Demócratas de Navarra) eta Ana Figueras Castellano andrea (IUN-NEB). Legebiltzarreko legelari Miguel Esparza Oroz jauna jardun da lan-taldeari laguntza ematen.

Lan-taldea eratzeko bilkuran María Victoria Arraiza Zorzano andrea hautatu zen lehendakari, eta barne funtzionamendurako arauak onetsi ziren.

3. Lan-taldean ondokoek parte hartu dute: Nafarroako hezkuntza erkidegoa; gurasoen eta irakasleen elkarteak; Nafarroako Eskola Kontseilua; Nafarroako Hezkuntza Administrazioa; Hezkuntzako Goi Ikuskaritza; Udal Administrazioa;

hezkuntzako sindikatuak; Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloko irakasleak; eta arkitektura, ingeniariaritz eta diseinu arloetako teknikariak.

Lan-taldean agerraldia egin dute ondoko adituek eta arloko eragileek –eskerrak eman nahi dizki-egu parte hartzeagatik eta emandako laguntza-rengatik–:

- Guillermo Herrero jauna. Hezkuntzako Goi Ikuskaritzako zuzendaria.
- Javier Arricibita jauna.- Hezkuntza Departamentuko Obren eta Mantentze Lanen Zerbitzua.
- José Ramón Lasanta Montes jauna. Hezkuntza Departamentuko Obren atalburua.
- Francisco Javier Esparza Sánchez jauna. Hezkuntza Departamentuko Ikuskapen eta Zerbitzuen zuzendari nagusia.
- Alberto Arriazu jauna. Navarra Villoslada BHIko zuzendaria.
- Marino Barasoain jauna. Sanitaria BHIko zuzendaria.
- Juan Manuel Sainz Jarauta jauna. Benjamín de Tudela BHIko zuzendaria.
- Javier Chueca jauna. Valle del Ebro BHIko zuzendaria.
- Juan Carlos Turumbay jauna. San Miguel IPko zuzendaria.
- Juan José Aragón jauna. San Jorge IPko zuzendaria.
- Avilio Errea jauna. Mendialdea IPko zuzendaria.
- Aitor Echarte jauna. Hegoalde ikastolako zuzendaria.
- José Ignacio Andueza jauna. Alaitz IPko zuzendaria.

- Xabier Ballerena jauna. Baztango eskualdeko landa-eskolen koordinatzailea.
- María José Anaut Couso andrea. UGT sindikatua.
- Amaia Zubieta andrea. STEE-EILAS sindikatua.
- José Elizalde jauna. CCOO sindikatua.
- Esperanza Iriarte andrea. LAB sindikatua.
- Arantxa Ayensa andrea. CSIF sindikatua.
- Juan Carlos Laboreo Viela jauna. AFAPNA sindikatua.
- Teresa Ucar Echagüe andrea. Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakaria.
- Alfredo Hoyuelos jauna. Berriozarko Udala-ren Haur Eskolako zuzendaria.
- Cristina Goñi andrea. Elizondoko Haur Eskolako zuzendaria.
- Clara Eslava andrea. Arkitektoa.
- Jesús Arrecubieta jauna. Arkitektoa.
- Iñaki Urkia jauna. Arkitektoa.
- Ignacio Iraizoz jauna. Nafarroako Hezkuntza eta Kudeaketa Elkarteko ordezkaria.
- José Flores jauna. Nafarroako Ikastetxeen Elkarte.
- Pello Mariñelarena jauna. Nafarroako Ikastolen Elkarteko ordezkaria.
- Fermin Garde jauna. Sortzeneko ordezkaria.
- José Javier Solabre Heras jauna. CONCAPA-ko ordezkaria.
- Pedro Rascón Macias jauna. Herrikoa-ko ordezkaria
- Javier Buldain jauna. Arkitektoa.
- Rubén Picado jauna. Arkitektoa.
- José Manuel Etayo Mtnéz. de Eulate jauna. Arkitektoa.
- Luis Orus Marca jauna. Ingeniari teknikoa.
- Jesús Oliva jauna. Hirigintzako soziologoa.
- Jesús Rekalde jauna. Arkitektoa.
- José María Moro. Ingeniari teknikoa.
- José Carlos de la Dehesa Villar jauna. Iruñeko Udaleko Hezkuntza eta Gazteriako Alorreko zuzendaria.

Agerraldia egin dutenek dokumentazioa ekarri dute, eta lan-taldeak behar bezala aztertu du dokumentazio hori.

4. Zenbait bilera egin ondoren, lan-taldeak honako txosten hau aho batez onetsi du, ekainaren 24an eginiko bileran. Azkenik, eta Legebiltzarreko Erregelamenduko 55.2 artikuluan ezarritakolari jarraikiz, lan-taldeak erabaki zuen Parlamentuko Mahaiari jakinaraztea lan-taldeak bere lana amaitu duela, Mahaiak Hezkuntza Batzordeari dei egin ziezaion txosten honetan onetsiriko proposamenak eztabaidatzeko.

## II. ALDEZ AURREKO HAURNARKETAK

1. Espazioa, denborarekin batera, gizakien nortasuna taxutzen laguntzen duen faktore bat da inondik ere, eta, horrenbestez, kontuan hartu behar diren elementuak dira espazioa eta denbora, hezkuntza prozesuen eta eskola curriculumaren kalitatean eragin positiboa edo eragin negatiboa izan dezaketen faktoreak diren aldetik.

Eragin hori egiaz zenbaterainokoa den jakitea zaila denez gero, ordea, faktore horiek ez dira beti kontuan hartu ez curriculumak prestatzerakoan ez, ondorioz, curriculumak garatu beharreko espazio fisiko nahiz denborazkoetan. Gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio espazioaren konfiguraziorari eta espazioak izan beharreko ezaugarriak zehazteari; izan ere, jabetzen hasiak gara ezen "hezkuntza giro" on bat lortzea lagungarria dela –espazioak eta denborak eragina dute horretan ere– irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan eta behar bezalako giza-harremanak ezartzeko.

Ikastetxeetako diseinuaren eta espazioaren konfigurazioaren arloko adituek XIX. mendetik hasita egin dituzte horri buruzko ekarpenak. Ekarpenera horiek, ordea, postulatu higienisten bidez gauzatu ziren batik bat; halatan, sarritan, postulatu horietatik heldu ziren eraikuntza-kode teknikoen ondorioz eratu zen ikastetxeen sarea oso estandarizatua eta homogeneizatzailea izan da, eta, neurri handi batean, berdin jarraitzen du. Homogeneizazio hori askotan ikus daiteke gaur egun ere Nafarroan; izanez ere, ikastetxe-diseinu bera aurki daiteke klima aldetik oso bestelako ezaugarriak dituzten herrietan eta inguru oso heterogeneoak dituztenetan.

2. Ekainaren 14ko 1004/1991 Errege Dekretua da, gaur egun, ikastetxe ez-unibertsitarioen gutxieneko betekizunei buruzko oinarritzko araua. Arau horrek soilik zehazten du eskola etapa bakoitzaren hezkuntza beharizanen eta helburuen araberrako espazio mota eta gutxieneko azalera; erabakiak hartzeko oinarritzko irizpidea eskola unitateen

kopuruaren arabera ezartzen da, eta, zenbait kasutan, aurreikusitako ikaspostuen kopuruaren arabera. 1004/1991 Errege Dekretuak irakaskuntza tradizionalaren ereduari erantzuten dio, baina eredu hori luzaz gaintitu dute egungo gizarte dinamikak eta beharrezanek. Gehiegikerian erori gabe esan daiteke egiazko beharrezanek oso urrutitik segitzen dietela eskola eraikinei buruzko hausnarketak nahiz ikastetxeak betekizun berrietara egokitzeak.

3. Azken hogeita hamar urteotan jauzi kualitatibo eta kuantitatibo handia gertatu da: hezkuntzarako sarbidea orokortu da, hamasei urtera bitarteko irakaskuntza derrigorrezkoa da, Haur Hezkuntzako 2. zikloa unibertsalizatu da eta Otiak 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloa arian-arian hedatzen ari da. Horrek guztiak erakusten du hezkuntzari buruzko kezka etengabea dela gure gizartean, hezkuntza baita oro har gizartearen ongizate, garapen, hobekuntza eta hazkuntzaren ardatza eta bereziki herritar bakoitzarena.

Erronka horiez gain, hezkuntza sistema gizartearen bestelako aldaketa batzuetara egokitu behar izan da, gizartearen jarreraren desafio berriak eta ildo nagusiak ezartzen dituzten ondokoetara hain zuzen ere: informazioaren eta komunikazioaren teknologien aurrerabide azkarra, iraungarritasuna eta ingurumenarekiko errespetua, efizientzia energetikoa, irisgarritasuna eta oztopoak kentzea, azken finean, gure gizartearen oinarriko gaiak dira, gizartearen interpretazioak eta pertzepzioak aldatu dituztenak eta isla zuzena dutenak eskola eremuan, gure gizartearen parte den aldetik.

4. Nabarmendu beharra dago ezen hezkuntza erkidegoaren ordezkariak, ikastetxeen eraikuntzari heldu diotenean, bat etorri direla ikastetxe bat proiektatu, diseinatu eta eraikitzean kontuan izan beharreko alderdi nagusiei dagokienez, ondokoak oinarri betiere: eskolaren esanahia berez zer den, ikastetxea ingurunean teilakatzea, hezkuntza etapa bakoitzaren berezitasunak eta gizarte dinamiko eta teknologikoki aurreratu baten erronkei erantzuteko ardura. Erronka nagusia da ezagutzaren gizartea eraikitzea, herritar guztiek erdiets dezaten garapenik handiena eremu pertsonalean nahiz hezkuntza eta gizarte eremuetan.

Hausnarketa horiei jarraikiz, lan-talde honen asmoa da Nafarroako ikastetxeen kokalekua, diseinua eta eraikuntza hobetzen laguntzea, hezkuntza giro ona nahiz hezkuntza erkidegoaren parte-hartzea ahalbidetuko duten hezkuntza guneak lortze aldera eta hezkuntza proiektu berritzaileak eta kalitatezkoak garatze aldera. Hori guztia helburu, lan-taldeak ondoko postulatu eta proposamenak egin ditu.

### III. IKASTETXEETAKO DISEINUARI, ESPAZIOAREN KONFIGURAZIOARI ETA PLANGINTZARI BURUZKO OINARRIZKO POSTULATU OROKORRAK

Ondoren, aplikatzekoa den araudiak ikastetxeen plangintzan, kokapenean, espazio-egituraketan eta diseinuan jaso beharreko oinarriko irizpideak azaltzen ditugu. Izan ere, baldintza teknikoen berariazko orriak egoki jaso beharko dituzte irizpide horiek.

1. Bada arau nagusi bat eskola-eraikuntzetan kontuan hartu beharrekoa: zerbait ez egiteak edo ongi ez egiteak berarekin ekartzen du gastu handiagoa egin behar izatea. Plangintza oker batek berarekin ekar dezake ikasleak beste ikastetxe batera eraman behar izatea, eta horrek gastuak dakartza jantokiengatik eta garraioarengatik, hain zuzen ere obren kostuari gehitu beharrekoa. Beste ondorio bat izan daiteke modulu aurrefabrikatuak jarri behar izatea obrek irauten duten bitartean, eta horrek ere gastu bikoitza ekartzen du. Azken batean, jarduera bat ekonomikoago suertatzen da hasieratik etorkizunari begiratzen zaionean, hezkuntza-jardueran hasi eta berehala gaintzen diren irizpide mugatuekin egiten denean baino. Horrenbestez, plangintzak, arintasunak eta irizpide argiek eraginkortasunez laguntzen dute Administrazioaren baliabideak aprobetxatzen.

2. Irakaskuntza-ikasuntza jarduerak gelako espazio mugatua gaintitu dute eta espazio malguagoak eskatzen dituzte, hain zuzen ere talde desberdinetako ikasleek partekatzen dituzten espazioak. Gaur egun, gela tradizionalak bezain garrantzitsuak dira bikoizketa-gelak, hizkuntzetarako gelak, laborategiak, teknologiko gela nahiz kirol ekipamenduak.

3. Ikastetxea, guztientzako espazio bat. Ikastetxeak arkitektura-oztoporik edo zentzumen-oztoporik gabeko espazioak izanen dira, guztientzat erabiltzen errazak. Izan ere, hezkuntza ikastetxera bereizkeriarik egin gabe sartzen diren ikasleek hezkuntza-premiei egokitu behar zaie. Horri dagokionez, kontuan hartu behar da, halaber, ikastetxe bakoitzean ikasten ari diren ikasleek premiei eta adinei egokitutako altzariak edukitzea.

4. Eraikuntza berrietan, iraungarritasuneko eta efizientzia energetikoko irizpideak bete beharko dira. Ikastetxeak errepide handietatik urrun jarri behar dira, zaratak saihesteko eta oinezkoak ikastetxera erraz joan daitezen eta ikastetxetik erraz atera daitezen, eta inguruetan ere aise ibil daitezten. Halaber, ikastetxeen eta jolaserako patioaren orientazioa aintzat hartu beharreko alderdiak dira

proiektu bat garatzeko garaian, energia aurrezteko edo aprobetxatzeko dauzkaten ondorioengatik.

5. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia ikasleen eta gizarte osoaren eguneroko bizitzaren atal bat dira. "Informatikako gelaren" kontzeptua zaharkiturik dago, eta pausoak eman beharra dago arbel elektronikoen ezarpenari nahiz teknologia digitalak geletan erabiltzeari dagokienez, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetako metodologiaren eta didaktikaren parte diren aldetik.

6. Erabat hezkuntzakoak diren guneak daude, ikasgela ez direnak: etapetako irakasleentzako guneak, irakasle gelak, mintegiak, bilera gelak, familiekiko tutoretzarako erreserbatutako guneak, beste arlo batzuetako profesionalekiko lanerako guneak –gizarte zerbitzuetako nahiz osasun arloko langileekiko lanerakoak–, guraso elkarteentzako guneak edo administrazio arloko lanerakoak. Hezkuntza-egintza ez da ikasgelan soilik gertatzen, eta, hortaz, gune edo espazio horiei behar bezalako garrantzia eman behar zaie, eta "behin-behinekotasun" iraunkorra ekidin.

7. Ikastetxeek gizartean eta gizarte-ingurunean inkardinaturik egon behar dute, eta haien diseinua izaera dinamizatzaile horri erantzun beharko lioke eskola ordutegian nahiz ordutegi horretatik kanpo. Hezkuntza, kultura, kirol eta jolas instalazioek irekita egon behar dute erkidegoarentzat, eta hezkuntza nahiz gizarte guneak diseinatzen direnean komeniko litzateke herriko hezkuntza, kirol eta kultura instalazioek balio izatea herritarren sektoreen topagune izateko.

8. Ikastetxe bat eraikitzea eskola-plangintzako prozesuaren amaiera izan behar du, eta oinarri izan behar ditu proiektzio demografikoak, hirigintza garapeneko aurreikuspenak eta helduen prestakuntza etengabeko hezkuntza nahiz prestakuntza arloko estrategia orokorra. Eskola eraikinen plan batek oinarri izan behar ditu azterketa horiek, baina errealitate bizi bat balitz bezala hartu behar da epe ertaineko plangintzaren barruan, halako moduz non aldaketak eta hobekuntzak sartu ahal diren baldin eta hasierako azterketan baliatutako datuak aldatzen badira.

9. Espazioa beste osagai hezitzaile bat da.

#### IV. HEZKUNTZA ADMINISTRAZIOARENTZAKO PROPOSAMENAK

##### 1. Ikastetxeak eraikitzeako berariazko betekizunak.

1. Ikastetxeei exijitu beharreko gutxieneko betekizunei buruzko araudia garatzea.

2. Ikastetxeen diseinuari heltzean kontuan hartzea zer hezkuntza etapa hartuko d(it)uen ikastetxeak.

3. Ikastetxea inguruneari eta haren berezitasunei egokitzea: ingurune fisikoa, klimatologia, hiri-ingurunea ala landa-ingurunea den...

4. Hezkuntza nahiz gizarte guneen diseinuan aurrera egitea, eremu berean eraikiz etapa desberdinetako ikastetxeak (baldin eta posible bada eta, ahal dela, hirigintza-garapen berrietan): Orik 3 urtera bitarteko zikloa, Haur eta Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza-Batxilergoa. Ikastetxeak eskola-erkidegoari irekitako ingurune gisa taxutuko dira.

5. Instalazio publikoak errentagarri egite aldera, administrazioen baliabideak partekatzea: kiroldegia, kultur etxeak, ikastetxeak.

6. Eskola Kontseiluak eta Klaustroak ikastetxearen proiektua ezagutu ahal izatea, iradokizunak egin ahal izateko.

7. Nafarroako Eskola Kontseiluak azpibatzaile bat izanen du, plangintza egin den unean ez klaustorik ez eskola kontseilurik ez duten ikastetxeen proiektuak aztertzeo.

8. Dokumentu bat prestatzea, baldintza-agiriari erantsiko zaiona eta ikastetxeak diseinatu eta eraikitzean zaindu beharreko betekizunak bilduko dituenena.

a) Ikastetxeen diseinua bide emanen du espazioak bizkor eta aise aldatu ahal izateko, bai eta etorkizunean handitzeko ere (halere, epe ertaineko beharrezan aurreikusitako beharko lirateke, handitzeak ekiditeko).

b) Ikasgela komunak –arloko ikasgelak, musika ikasgelak...– halako moduz kokatuko dira non ez diren ikastetxe barruan joan-etorri luzeak egin beharko.

c) Haur Hezkuntzako ikasgelak, Lehen Hezkuntzarekin partekatutako ikastetxeetan, beheko solairuan paratuko dira, eta, ahal dela, patiora zuzenean irteteko atea izanen dute.

d) Pedagogia arloko betekizunak:

– Irakaskuntza motari eta ikasleen adinari egokitutako ikasgelak.

– Liburutegia/laborategiak.

– Arloko ikasgelak (Bigarren Hezkuntza)

– Bikoizketako ikasgelak

– Ikasgela tailerrak

– Tutoretzako bulegoak

- Orientabideko bulegoak
  - Irakasle gela
  - Mintegi didaktikoak
  - Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak instalatzea
  - Erabilera anitzeko gelak (erabilera askotarako egokituak)
  - Ekitaldi aretoa
  - Guraso elkarten gela
  - Kirol eremua/gimnasioa
  - Musika gelak
  - Artxiboa
  - Jantokia eta sukaldea
  - Kafetegia (Bigarren Hezkuntza)
  - Administrazioa eta zerbitzuak eta atezaintza
- Lanbide Heziketako ikastetxeetan ondokoak ere egonen dira:
- Tailerrak (segurtasuna eta aireztatzea)
  - Aldagelak
  - Tailerrak/ikasgelak banatzea
  - Aparkalekua
  - Zamalaren eremua
- Otik 3 urtera bitarteko ikastetxeetan:
- Espazio irekiak, oztoporik gabeak
  - Patiorako irteera ikasgela bakoitzetik
  - Ikastetxera egokitutako altzariak
- Eskolako patioak
- Beste hezkuntza-gune baten gisa antolatu eta ulertu behar da patioa.
  - Patioak hainbat erabilera izan ditzakeenez, eta patioen erabiltzaileen adina ere ezberdina izan daitekeenez, eremuak bereizi behar dira patioan, aldi berean erabiliz gero jarduera batek ez dezan beste bat eragotzi edo oztopatu.
  - Patio guztiek izanen dute eremu estali bat, euria edo eguraldi txarra dagoenetan ziurtatuta egon dadin jolasa.
  - Patioetan haurrentzako eremu bat egonen da, non txikienek lehentasuna izanen baitute. Eremu hori sartzen erraza izanen da, zainduta egonen da eta hegoaldera begira edo ahalik eta orientaziorik beroena izanen du.

– Kirol pisten eremua eskola eraikinetik ahal den urrutien egonen da, beste eremu batzuetan daudenei interferentziak eta eragozpenak ekidite aldera.

e) Irisgarritasunari lotutako betekizunak

– Oztopo fisikorik eta zentzumenezkorik gabeko ikastetxeak.

– Bainugela egokituak.

– Altzari egokituak.

f) Efizientzia energetikoa

– Eraikinaren orientazioa klimaren ezaugarrietara egokitzea.

– Berokuntza sektorizatua.

– Isolamendu eta zurgintza eraginkorrak.

– Energia-iturri garbien erabilera.

– Ikasgela ondo argiztatuak, batez ere argi naturalarekin, argi artifizialarekin osatua, foku egokien bidez potentzia eta kopuru aldetik.

– Atari itxiak.

– Bizitza luzeko estalki isolatzaileak.

g) Segurtasuna eta osasuna

– Isolamendu akustikoa, kanpoko nahiz ikasgelen artekoa, batez ere jarduera zaratsueneko ikasgeletan (musika).

– Material ez-labaingarria erabiltzea bainugeletan, pasabideetan, eskaileretan, sarrerako atondoan, jantokietan, laborategietan.

– Haur Hezkuntzako ikastetxeetan arreta berezia jarriko zaie segurtasunari eta erosotasunari, material berotsuak erabilia. Orobat ekidinen dira arriskutsu izan litezkeen oztopoak.

– Huste-sistema azkarra eta segurua.

## 2. Ikastetxeak mantentzeko berariazko betekizunak.

Mantentze-prozesuak azkartze aldera eta ikastetxeek behar dituzten berrikuntzak eta hobekuntzak bizkortze aldera, Hezkuntza Departamentuak Ikastetxeen Mantentze Plana prestatuko du. Plana izaera prebentiboa izanen du.

Plan horri esker, Nafarroako ikastetxeen beharrian zehatzak ebaluatu ahalko dira, eta, hartara, hobeki egin ahalko da egokitzapen eta zuzenketa arloko obretako beharrian plangintza. Orobat balioko du aztertze eta baloratzeko ea beharrezkoa den ikastetxea berritzea edo handitzea, edo eraikin berri bat eraiki behar den.

1. Dokumentu bat egitea, zeinetan jasoko baita ikastetxeko zer elementuk egon behar duten egoe-  
ra hobezinean eta, hortaz, zer elementu berrikusi  
behar diren etengabe:

- Osasun-instalazioak: bainugelak, ura, dutxak,  
aldagelak...
- Isolamendua: zurgintza, estaldiak.
- Berokuntza.
- Instalazio elektrikoak.
- Pintura.
- Eskolako patioa.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknolo-  
giako instalazioak.
- Higiene eta segurtasun arloko araudian jaso-  
tzen diren alderdi guztiak.

2. Dokumentuak orobat jasoko ditu ikasle kopu-  
ruak, ikastetxeko taldeek nahiz matrikulari buruzko  
aurreikuspenek eragindako beharizanak.

3. Urtero, arestiko puntuan aurreikusitako doku-  
mentua beteko dute ikastetxeek, ikastetxeen egoe-

ra zehatza zein den jakin ahal izate aldera eta  
mantentze-lan prebentiboa egite aldera. Dokumen-  
tuak hezkuntza etapa bakoitzari egokituko zaizkio.

4. Bost urtean behin, berrikuspen zehatzagoa  
eginen da, munta handiagoko beharizanak edo  
egiturazko beharizanak hauteman diren jasotze-  
ko.

5. 25 urtetik gorako ikastetxe guztiei buruzko  
ebaluazio integrala eginen da, gaur egungo beha-  
rriazkora eta betekizunetara egokitzea helburu.  
Ebaluazio horrek ondorio izan dezake berritze  
sakon bat egin beharra edo ikastetxe berri bat  
eraiki beharra.

6. Plan hori, ikastetxeentzat eta departamentu-  
arentzat nahitaezkoa izanen baita, Ikastetxeen  
Azterketa Teknikoa izanen da.

7. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak  
udalen ardura direnez gero, koordinazio prozedura  
bat ezarri beharko da, ikastetxe guztiek, instalazio-  
ei dagokienez, gisako kalitatea izan dezaten.

8. Urratsak eginen dira kontusail bat egon  
dadin urtero ikastetxeen urteko mantentze-lanen  
planerako.